

## AGERIKO BATZARRA

*Iturenen, 2000.eko maiatzaren 27an*

Iturengo herriko etxean, 2000.eko maiatzaren 27an, goizeko hamaikak eta erdicitan eman zaien hasiera Euskaltzaindiaren ageriko batzarrari. Ekitaldi akademikoa hasi baino lehen, Euskaltzaindia, alkate eta zinegotzikin batera, dantzari, txistulari joaldun eta herritar ugari lagun dituztela, A. Iñigo euskaltzain berriaren etxera abiatu dira denek batera sartzeko gero Udaletxera.

J. Haritschelhar euskaltzainburua, II. Knörr buruordea, P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana diruzaina eta Miren Azkarate, P. Charriton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi, A. Urrutia eta P. Zabaleta euskaltzainak bildu dira aretoan.

A. Aranburu, A. Arejita, R. Badiola, L. Baraiazarra, Pilartxo Etxeberria, J. L. Goiakoetxea, M. Gorrotxategi, M<sup>a</sup> Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, P. Uribarren, M. M. Ruiz Urrestarazu, P. Salaberri, J. J. Zearreta, J. R. Zubimendi euskaltzain urgazleak eta J. M<sup>a</sup> Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoa ere batzarkide izan dira.

Aipatutako euskaltzainez gainera ekitaldian parte hartu dute J. M. Gorosterrazu, Iturengo alkateak, J. R. Elorz, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, M. A. Petrirena, Malerrekako Mankomunitatearen lehendakariordeak, B. Bilbao, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politika Sailburuordetzako ordezkariak, G. Lobera Bizkaiko Diputazioko Euskarazuzendariak eta eskualdeko alkate eta zinegotzi andana batek, foru parlamentari eta kultur elkarteetako kide zenbaitek eta herritar ugari.

Ezin etorria adierazi dute, besteak beste, M<sup>a</sup> Karmen Garmendiak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak eta X. Aizpurua Hizkuntza Politika Sailburuordeak.

Aretoa bete-betrik egon da eta hainbat jende zutik.

Andres Iñigo euskaltzain berriaren sarrera ekitaldia ospatzea zen batzarraren xedea.

Mahaiburuan eseri da J. M. Gorosterrazu, Iturengo alkatea. Honen eskuinaldean J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Goenaga idazkaria eseri dira eta ezkerretara, J. R. Elorz, Nafarroako Gobernuaren ordezkaria eta M. A. Petrirena, Malerrekako Mankomunitatearen lehendakariordea.

Herriko alkatearen agur hitzen ondoren idazkariak ekitaldiaren zergatia azaldu du laburki. Ondoren, Jose M<sup>a</sup> Satrustegi eta Andres Urrutia jaunak euskaltzain berriaren bila joan dira. Txalo artean sartu dira berriro aretoan.

Ondoren, Andres Iñigo euskaltzain berriak bere sarrera hitzaldia irakurri du: *Onomastika euskararen normalizazioan*. Honi Andres Urrutia jaunak erantzun dio *Mendebaldetik Ekialdera erromes baten oharra* izeneko hitzaldiarekin.

Hitzaldi hauen ondoren, euskaltzainburuak hitz labur batzuk eskaini ditu Euskaltziandiaren lanaren berri emanaz eta ekitaldiaren esanahiaz gogoeta eginez. Gero euskaltzain berriari diploma, domina eta ezautailua eman dizkio eta besarkada batez agurtu du. Euskaltziainek ere besarkada eman diote. Udalak ere opari bat eskaini dio Iñigo jaunari eta ekitaldia amaitzeko *Agur Jaunak* jo dute txistulariek.

Ondoren, herriko plazan *Iturengo mutil-dantza* dantzatu diote euskaltzain berriari. Jai giroan beti ere, herri-bazkariarekin amaitu da ospakizuna.

Euskaltzainburuak

Jean Haritschelhar

Idazkariak

Patxi Goenaga

\* \* \*